

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



IRAZUSTA FAMILIAKO EMAKUMEA BILLARREAN JOKATZEN

Joan den mendeko 20ko hamarkadan, billarrean aritzeko zaletasun handia zegoen. Taberna, jatetxe eta hoteletan iragarri egiten zituzten. Bilbon Estatuko txapelketak antolatzen ziren, Donostian Europako eta Munduko txapeldunak biltzen ziren, eta elkarte gastronomiko eta kultural guztiek eta baita alderdi politikoeak ere beren txapelketak antolatzen zituzten. Euskal egunkariak orriak eskaintzen zituzten modako jokoari. Donostian kokatutako Behobiako tornulari batek ere, Martin Guirrok, bolak egiten zituen gero esportatzeko. Irunen, garai hartan, billar mahaien fabrika bat iragartzen zuten, "Izarra" izenekoa. Hala ere, Euskal Herriko eta Europako prentsako argazkien eta erreferentzien arabera, joko hori gizonetzkoentzat baino ez zela zirudien, nahiz eta familia- edo lagun-eremuetan emakumeek ere parte hartzen zuten. Aipatzekoa da Camila Quiroga aktorearen argazkia billarrean jokatzen, 1920an; "El Grafico de Argentina" aldizkariaren azala izan zen. Garai horretan txapelketak irabazi zituen beste emakume nabarmen bat Ruth McGinnis estatubatuarra izan zen. 20ko hamarkada aldaketa-aldi bat izan zen, emakumeak gizarteko esparru askotan parte hartu zuen aldia, eta mugimendu eta sindikatu feministak agertu zirena. Artikuluak erakusten duen argazkiak, ziurrenik mota horretako bakarra denak, Irazusta familiako emakume bat erakusten du urte haietan billarrean jolasten, Papelera del Araxesetik gertu zegoen etxean. Billarraren atzean argazki estereoskopikoak ikusteko bisore bat dago, albumekin batera. Irazustatarrek Gipuzkoako Leaburu herriko Txarama auzoko Araxes paper-fabrikaren sustatzaile eta administratzaileak izan ziren.